

OBRA LITERARIOA PAPEREAN ARGITARATZEKO
KONTRATU EREDU BAT OHAR JAKINGARRIEKIN
2021 ekainak 28

ARGITALPENA: edizioa, testua liburu formaz argitaratzea.
ARGITARALDIA: tirada, inprimaldia, argitalpen bakoitzean
(aldira) inprimatzen den liburu kopurua.

BILDURIK

Batetik NAN zenbakia duenak eta
argitaletzeko ahaldun eta ordezkari gisa (datorren
hitzarmenean ARGITALETXEA)

Eta bestetik NAN zenbakia duenak,
helbidea (datorren hitzarmenean EGILEA)

Egitate honetarako behar den lege ahalmena elkarri aitortuz

ARGITALPEN KONTRATU HAU ADOSTEN DUTE

I kapitulua

ARGITARATZEKO BALDINTZA INDUSTRIALAK

1

EGILEAK EMANDAKO LAGAPENA

EGILEAK laga egiten dio ARGITALETXEARi bere XXXXXXXX izeneko
obra, paperean eta argitalpen arrunta deritzan moldean
euskaraz inprimatu, banatu eta saltzeko eskubidea emanez.

LAGAPENA

Laga egiten du, baimena ematen du egileak, ez du saltzen
edo oparitzen. Egileak bere obraren jabe izaten jarraitzen
du kontratua sinatutakoan ere. Horren froga izan behar du

kontratuak: argi azaldu behar du zertarako ematen dion baimena editoreari. Baimen horrek muga, baldintza eta betebeharrak batzuk dauzka argitaratzailearentzat.

PAPEREAN

Garrantzi handikoa da zehaztea "paperean", horretarako bakarrik ematen zaio eskubidea: zenbat euskarri hainbat kontratu. Paperak bere kontratua, digitalak bere kontratua. Kontratuek zehatzak eta gardenak izan behar dute.

HIZKUNTZA(K)

Lagapenaren lurralde-eremua, hizkuntza edo hizkuntzak jasotzea komeni da.

HIZKUNTZA BAT BAINO GEHIAGO

Argitaratzaileak hizkuntza bat baino gehiago proposatzen badu, kontratuak aipatzen dituen hizkuntza guztietan argitaratu behar du obra editoreak.

LEGEAK DIOENA HIZKUNTZEZ

"Egileak bere lana entregatu zuenetik bost urte igaro ondoren, argitaratzaileak kontratuan aurreikusitako hizkuntza guztietan argitaratu ez badu, egileak ebatzi ahal izango du argitaratu ez dituen hizkuntzei buruz", dio legeak.

Itzulpenetarako ere balio du Legearen klausula honek.

JABETZA ETA ORIGINALITASUNA

EGILEAK ziurtatu egiten du laga duen obraren jabea dela, berak sortua, originala, eta kontratu honen bidez lagatzen dituen eskubideen erabilerak ez diola inolako gatazkarik ekarriko ARGITALETXEARi.

GATAZKA

Originalak sariren bat irabazten badu argitaletxeak onartu ondoren, gatazka sortu liteke: sari batzuek aldi baterako salmenta eskubidea hartzen dute.

3

LAGAPENAREN IRAUPENA

Kontratu honek 5 (bost) urteko iraupena izango du gaurko datatik hasita (XXXX XX XX).

KONTRATUAREN DATA

Kontratua argitaletxeak originala ontzat emandakoan bertan sinatzea da interesgarriena idazleontzat, lehenbailehen argitarara dadin (ikus 4. artikulua)

HAMABOST URTE GEHIENEZ

Argitaratzaileek legea beren aldera interpretatzen dute kontratuaren gehieneko iraupena: iraupen zehatzik adostu ez den kasuetarako ezartzen du legeak kontratuaren iraugitze data (15 urtekoa) luzeeneko muga gisa. Beraz, 15, 12, 10 urterako kontratuak proposatzen dizkigute.

ONARTEZINA

Hamabost urteko lagapena ezin da onartu inondik inora kontratuen iraupen "normaltzat". Egilea obraz desjabetzea da funtsean.

IRAUPEN ZEHATZA

Horregatik da hain garrantzitsua iraupen zehatz bat ezartzea kontratuan.

USTIAPENA

Bost urte aski dira gaur egungo merkatuan liburua ondo ustiatzeko. Hortik aurrera argitalpen berriak egitea aholkatzen dugu (bestelako azala, hitzaurrea, testu orraztu edo berritua, promozio berria), kontratu berri batekin argitaletxe berean edo beste batean.

OBRAREN JABE

Idazleak bere obraren jabe izan behar du beti.

4

ARGITARATZEKO EPEA

Kontratu hau sinatzen duenetik aurrera, ARGITALETXEAK 12 (hamabi) hilabeteko epea dauka gehienez obra merkaturatzeko, edo 6 (sei) hilabeteko epea egileak bere azken zuzenketak entregatu dituenetik.

Epe honen barruan daude orrazketak, proposamenak, azken probak eta EGILEAREKIKO adostasun artistiko eta literarioak.

Bere obra hamabi hilabeteko epe honetan argitaratzen ez bada, EGILEAK eskubidea dauka kontratu hau hausteko.

GEHIENA NORMALTZAT HARTZEN DUTE, KONTUZ

Legeak "gehienez ere" bi urte ezartzen ditu liburua zirkulazioan jartzeko epe gisa, jatorrizkoa aurkezten duen unetik zenbatzen hasita. Muga hori "epe normaltzat" hartzen dute editorial batzuek. Bistan da luzeegia dela itxaronaldi hori idazlearentzat eta obrarentzat ere.

KONTRATUA HAUSTEA

Editoreak ez badu adostutako klausula betetzen, kontratua indargabetu egin genezake.

PROBAK ERREBISATZEA

Zuzenketak onartzeko edo ez onartzeko eskubidea ematen dio legeak egileari, "probak errebisatu" formula lausoan bada ere.

Aspergarria izan baliteke ere, komeni da testua berrirakurtzea inprimategira baino lehen. Beti dago zer zuzendua.

6

ARGITARATZEKO ARDURA TEKNIKOAK

ARGITALETXEAK bere gain hartzen du:

a) EGILEAREN izena nabarmen erakustea argitaratuko diren ale guztietan: azalean, bizkarrean, kontrazalean eta kredituen orrialdean.

b) Obraren izenburua nabarmen erakustea portadan.

d) Jabetza intelektualaren erreserbaren nazioarteko ikurra agertzea (Copyright) EGILEAREN izen-abizenez, edo goitizenez.

e) Lehen argitalpenaren urtea agertzea, dagokion Copyrightarekin.

f) Obra merkatu zirkuituan jartzeko behar diren lanak betetzea: itxura, maketazioa, letra tipoa, lerroartekoak, margenak, paperaren kalitatea...

g) EGILEA jakinaren gainean edukitzea aurreko puntuan aipatu lanez, iritziak trukatzeko.

h) EGILEAREN obra aurkeztea eta promozionatzea.

i) Behar bezalako bideak erabiltzea EGILEAREN obrak kritika literarioaren arreta jaso dezan.

MERKATURATZEA

Tamalez, ez da arraroa izaten indarrik gabeko portadak ikustea: erakargarritasunik ez, izenburua letra txikiegiz, krontrazaleko testu geza, maketazio estuegia lerroartean edo margenetan...

PUNTUOK AIPATZEAREN GARRANTZIA

Liburuak artelana izan behar du. Prozesua gertutik jarraitzea gomendatzen dugu. Kontratuan puntuok aipatzeak konpromiso bat aitortzen dio argitaletxeari, eta eskubide bat idazleari.

ARGITALPENA ETA ARGITARALDIA

EGILEAK eta ARGITALETXEAK adosten dute argitalpen berri bat egin ahal izango dela obrari funtsezko aldaketak egin nahi

zaizkionean testuan, sarrera edo epilogoa erantsi nahi zionean edo azala aldatu merkatu nahi denean.

Hala berean adosten dute liburuaren argitaraldiak ez direla argitalpentzat hartuko.

BEREIZKETA GARRANTZITSUA

Promozioa dela eta, ohiko samarra da xingola bat eranstea liburuari hainbatgarren argitalpena dela jakinaraziz. Gehienetan, ia guztietan, "argitalpena" ez baina argitaraldiak izaten dira. Horrenbestez, benetako argitalpena baztertzen da. Batetik, ez da etikoa erosleekiko; bestetik, bizi berriak ukatzen zaizkio obrari.

8

ARGITARALDI KOPURUAK

Kontratu hau indarrean dagoen epe barruan ARGITALETXEAK XX argitaraldi egin ahal izango ditu gehienez, XXX alekoak gutxieneko eta XXXX alekoak gehieneko.

ARGITALETXEAK jakinaren gainean jarriko du EGILEA argitaraldien premiaz.

ARGITARALDIA edo TIRADA EDO INPRIMALDIA

Argitalpen beraren ale gehiago inprimatzea da argitaraldia.

ARAUDIA

Legearen 72. artikulua aurreikusten duen Argitaraldi-kontrolaren Ezaugarriak Finkatzen dituen Araudia aipatzen du. Araudi honek dio argitaratzaileak ziurtagiri bat eman behar diola egileari, inprimatuko den ale kopurua zehaztuz, inprimatzailearen eta koadernatzailearen agiriekin.

GURE ESKUBIDEA DA

Zuen liburua kalean badago eta ziurtagiria eta adierazpenak jaso ez badituzue, editoreari erreklamatu

behar dizkiozue beti, baita klausula hori zuen kontratuan agertzen ez bada ere. Arestian aipatu dugun Araudia 1988ko apirilaren 29tik dago indarrean, eta data horretatik aurrera argitaratzaile guztiak behartzen ditu, puntu hori kontratuetan sartua egon ala ez.

KOPURUAREN BERRI EMATEA EZ DA ASKI

Gure kontratu batzuetan azaldu ohi da puntu hori, baina nahasgarri: "Argitaraldi bakoitzean kaleratzen den alekopuruaren berri emango zaio beti idazleari": Baina inolako agiririk erakutsi gabe, "kopuruaren berri" besterik ez.

ARGITARALDIARENA ALDEZ AURRETIK JAKITEA

Garrantzizkoa da gure lana nola dabilen jakitea. Argitaraldia egin beharrean egokiagoa izan liteke argitalpen berri bat planteatzea: testua berritu edo eguneratu nahi dugulako, azal berri batekin nahi dugulako ikusi... Argitalpen berriak berpiztu egiten du interesa. Argitaraldiak inertzia jarraitzen du.

9

ZENBAT ARGITALPEN

Kontratu hau indarrean dagoen epe barruan ARGITALETXEAK XX argitalpen egin ahal izango ditu gehienez, XXX alekoak gutxieneko eta XXXX alekoak gehieneko.

ARGITALPENA

Gure argitaletxeek ez dute argitalpen berriak egiteko ohiturarik. Gerta liteke milaka ale merkaturatzea hainbat argitaraldi eginez, edizio berririk egin gabe. Merkatuaren inertzian lokartu bezala egiten da argitaletxea, obraren meritua baliatu gabe produktua aupatzeko.

BERRARGITARATZEA

Gure obra "berrargitaratu" dutelako abisua jasoz, argitalpen berri bat egin dutela ulertzen dugu (guri aurrez ezer kontsultatu gabe). Baina "berrargitaratzea" 50 alekoa

dela irakurrita (berrogeita hamar), garbi dago ez dela argitalpen berri bat. (Orotarikoan: argitara eman, argitara atera / argitara berri, recién publicado / argitaratzear, a punto de publicarse).

LEGEZ

Legeak argi dio kontratuan adostuko dela argitalpen bakoitzaren ale kopuru gutxienekoa eta gehienekoa.

10

STOCKA HORNITZEKO

Argitaraldia agortutzat hartuko da saldu gabe dagoen liburu kopurua 100 aletik beheitikoa denean edo argitaraldi osoaren %5etik beheitikoa denean.

11

KORTESIAZKO ALEAK

EGILEAK 20 ale jasoko ditu argitalpen bakoitzeko, inolako kargurik gabe. Argitaraldi berri bakoitzeko 4 ale jasoko ditu inolako kargurik gabe. EGILEAK ezin izango ditu aleok merkatura bideratu eta ez dute, beraz, egile eskubiderik sortzen.

Era berean, EGILEAK erosi ahal izango dio ARGITALETXEARi, irabazi asmorik gabe eta erabilera partikularrerako edo inorentzat behar dituelako inprimatu diren aleen %XXX gehienez, %XXko kenketarekin.

12

INPRIMATEGIKO AKATSAK ETA BESTELAKO KALTEAK

EGILEAK eskubidea dauka gaizki inprimatutako eta hondaturik heldu diren aleen kopurua jakiteko.

13

SUSTAPENERAKO ALEAK

ARGITALETXEAK obraren salmenta sustatzeko eta kritika literarioa bermatzeko banatu duen ale kopurua jakiteko eskubidea dauka EGILEAK.

EGILEAK ulertzen du aleok, sustapenerako izanik, ez dutela irabazirik sortzen.

14

SALMENTAREN JARRAITASUNA

IDAZLEAK ere irabazia salmentatik jasotzen duenez, ARGITALETXEAK merkatuaren eskaria jarraituko du, liburu-dendak ez daitezen alerik gabe geratu.

15

LEHENTASUN BALDINTZATUA

Kontratua iraungi ondoren, ARGITALETXEAK lehentasunezko aukera izango du obra hau bera berriro argitaratzeko, baina EGILEAK inorekin hitzartu dezakeen kontratuan baino baldintza hobeagotan.

16

BESTELAKO ESKUBIDEAK

EGILEARENak dira kontratu honetan berariaz laga ez diren eskubide guztiak.

II kapitulua

ARGITARATZEKO BALDINTZA EKONOMIKOAK

17

EGILE ESKUBIDEAK

Kontratu honen bitartez lagatzen den ustiaketa komertzialaren ondorioz ARGITALETXEAK IDAZLEAREKIKO hartzen duen zorra kitatzeko, honakoa adosten da:

1. EGILEARI legez dagozkion eskubide ekonomikoen aurrerapen gisa, ARGITALETXEAK XXXX euroko kopurua ematen dio kontratu hau sinatutako unean bertan, egile eskubide horien kontura.
2. Egile eskubideok XXXXXXXX izeneko liburuak merkatuan duen salmenta-prezio publikoaren %12az ordaintzen da, BEZik gabe, saldutako ale bakoitzeko eta XXXXX aleraino.

Aurrerapena kitatu denetik eta XXXXX aletaraino, %12 jasoko du EGILEAK saldutako ale bakoitzeko. Eta kopuru horretatik gora %15 jasoko du egileak saldutako ale bakoitzeko.

AURRERAPENA

Diru aurrerapen hau zaila da zehaztea, ustez salduko denaren arabera izan behar baitu ezinbestean. Hala ere, gutxieneko bat ezar genezake, argitaraldiaren ale kopuruak adierazten baitu zerbait salmenta posibleaz. Adibidez, 1.000 aleko argitaraldi batean 400 ale salduko direla suposa liteke, eta horixe aurreratzea.

SALMENTATIK ERE BIZI GARA

Egileok barneratu behar dugu liburua gutxi saltzea galera handia dela guretzat (eta ez bakarrik editorearentzat). Hain zuzen, obra onartzearekin negozioa egin lezakeela adierazten du editoreak: bere gain dago salmenta gauzatzea.

Hori bermatzeko ezarri ditugu ARGITARATZEKO BALDINTZA
TEKNIKOAK (6).

ESKUBIDEAK GORATZEA 1990eko HAMARKADAN

Garai horretan, salmenta kopuru batetik gora, bost puntutan igotzen zen egilearen irabazia, %10etik %15era. Baina igoerak bazuen gibelondorio interesgarri bat: ordura arte saldutako ale kopuruari ere eransten zitzaion gainsari hori, %10etik %15erakoa (%5). Alegia: 2.000 alerainoko salmenta 10euroko liburuak, 2.000 euro egilearentzat (%10). Hortik aurrera %15 jasoko zuen, baina aurrez saldutako guztiei %5eko gainsaria erantsi behar zitzaien. Formula horrek 1.000 euro gehiago zekarzkie egileari.

Klausula hori, ordea, desagertu egin zen XXI. Mendean sartzearekin.

17.1

EGILE ESKUBIDEAK LIBURU KOLEKTIBOETAN

Idazle batek baino gehiagok egindako liburuetan, nork bere egile eskubideak gordeko ditu.

NORMALTASUN TRONPAGARRIA

Argitaletxearen proiektuak izaten dira gehienetan. Horrelakoetan, ohikoa da, eta idazleok "normaltzat" hartu izan dugu, idazle bakoitzari hainbesteko bat ordaintzea argitaletxeak egile eskubideen truke. Alegia, idazleak uko egiteagatik bere egile eskubideei.

"Hobe 500 euro eskuan, ausazko salmentaren egile eskubideak baino lau egileren artean".

GALERA

Gerta liteke ordea –adibideak ez dira falta– liburu horiek leku handia hartzea merkatuan, eta asko saltzea. Ordaindu zaizkion 500 euroak baino gehiago irabaziko zituzkeen egileak bere eskubideak saldu ez balitu.

AGIRIEN GARRANTZIA

Horrelako kasuetan, bestalde, ezin gardenago ikusten da 7. atalak dionena argitaraldi kopuruen agiriak eskatzearen garrantziaz.

18

IKERKETA, IRAKASKUNTZA, DATU BASEAK, LIBURUTEGIAK

EGILEA jakinaren gainean jarririk eta berarekin adostuta, ARGITALETXEAK ahalmena izango du EGILEAREN obra EKKI edo CEDRO erakunde lizentziadunean alta emateko, EGILEAK eta ARGITALETXEAK fotokopien eta bestelako kopiagailuen gaineko zergaren onurak jasotzeko.

19

LIKIDAZIOAK

ARGITALETXEAK ziurtagiri bat bidaliko dio EGILEARI urteko lehen hiruhilekoan, aurreko urte naturalean egindako aleen salmenten likidazioak jakinaraziz: zenbat ale argitaratu eta saldu diren, data hartaraino zenbat ale dauden banatuak, zenbat banatzailearen eta ARGITALETXEAREN biltegietan. Aipatutako ziurtagiria bidali eta 15 (hamabost) eguneko epean egingo du ordainketa ARGITALETXEAK.

EGILEAK liburu bat baino gehiago baldin badauka argitalexte honetan, liburuka egingo dizkio likidazioak ARGITALETXEAK.

LIKIDAZIOAK LIBURUKA

Kontratuak liburuka egiten direnez, unitate ekonomiko autonomoak dira liburukak. Eta halaxe egin behar ditu likidazioak editoreak: ezin ditu liburu baten irabaziak erabili egile beraren beste liburu baten galerak berdintzeko.

EGILEOK FAKTURA EGIN BEHARRA?

Azken urteotan hedatzen ari da idazleok faktura egin beharra geure egile-eskubideak kobratzeko. Absurdoa dirudi egileak aldiro fakturak egin beharra bere lana ustiatzeko eskubideak laga dionari. Absurdoa ez ezik irregularra ere bai (legeak ez du inon aipatzen idazleok fakturatu behar dugunik).

ORDAINTZEKO MODUAK

Ordainketak era desberdinetan egiten dituzte argitaletxeek: transferentziaz, txekez, pagarez... Gertatu ohi da urteko lehen hiru hilabete barruan jasotzea txekea edo pagarea hurrengo hilean datatua egotea ere. Horrelakoak eragozteko, ondo legoke kontratua ezarraraztea guri erosoena eta komenigarriena zaigun ordainketa modua.

20

LIBURU AZOKAK

ARGITALETXEAREN eskariz azoketan egin behar dituen egonaldietan, harat-honatak eta otorduak ordaintzeko paga jasoko du EGILEAK.

PRINTZIPIO BAT

Durangoko feriara, adibidez, egilea ez doa beti liburu sinatzeagatik bakarrik. Giro bat dago, topalekua izan liteke. Baina, printzipioz, argitaletxearentzat ere ari da lanean. Sinaduren kontua lan gogorra da, ez liburuaren inguruko folklorea.

ZABALIK

Azken finean, tratu ona aldarrikatzen dugu puntu honekin. Nork berak ikusi behar du zer zaion egokiago.

OGASUNAREKIKOA

EGILEAK berariazko ahala ematen dio ARGITALETXEARI kontratu honen xede den jabetza intelektualaren errendimendu ekonomikoaren ondoriozko kantitateak kendu, aitortu eta Ogasun Publikoan sartzeko, legezko xedapenez ARGITALETXEAK autore-zergadunaren ordezkotzat den zerga edo karga guztietan, edozein zerga kontzepturengatik.

10T AGIRIA

Pertsona Fisikoen Errenta Zerga: salmenta likidazioetan egile eskubideen kopuruari kendu beharrekoa. Oro har, argitaletxeek 10T delako agiria bidaltzen diote urtero egileari, jasotako mozkinen aitorpen gisa, kenketa aitortuz.

III kapitulua

ARGITALETXEAREN ERAKETA ETA JARDUNBIDEA

KONTRATU HONEN ESKUBIDEAK SALTZEAZ ETA LAGATZEAZ

Jabetza Intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/87 Legearen 68. artikulua f) letran ezarritakoaren arabera, bi aldeek adierazten dute, ARGITALETXEA juridikoki sozietate anonimo edo mugatu gisa eratua baldin bada, ezin izango dela enpresaren titulartasun aldaketatzat jo titularrek akzio edo

partaidetza sozialak hirugarrenen alde bati saltzea. Era berean, ARGITALETXEAK pertsona fisiko gisa badihardu, laga ahal izango dizkio kontratu honen ondorioz eskuratzen dituen eskubideak sozietate anonimo edo mugatu bati, baldin eta sozietate hori berak eratua eta kapitalaren %50 baino gehiagoren jabe baldin bada. Sozietate horrek ordeztuko luke ARGITALETXEA kontratuaren iraupen osoan.

23

JARDUNBIDE KOMERTZIALAZ

Dela besterentzeon ondorioz edo bestelako arrazoiak direla medio ARGITALETXEAK obra literarioen kaltean aldatzen badu liburugintzan duen jardunbidea, EGILEAK eskubidea dauka kontratu hau urratzeko.

LIBURUA EZ DA EDOZEIN MERKANTZIA

Legeak, puntu honetan, argitaletxea enpresa arrunt bezala hartzen du, liburuak kultur baliorik izango ez balu bezala. Espainiako eta Frantziako argitalgintzaren historian maiz gertatzen da argitaletxe txikiak zuen kalitate maila galtzea argitaletxe handiren batek erositakoan, liburuaren kontzeptu merkantila nagusituta.

IV kapitulua

KONTRATU HONEN LEGEAREKIKOAK

24

JABETZA INTELEKTUALA

Argitalpen kontratu hau Jabetza Intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/87 Legean oinarrituta arautu da, eta haren xedapenetan interpretatuko da.

25

HELBIDEAK

Alde biek kontratu honen goiburuan adierazitako helbideak aldatzen badira, jakinaren gainean jarriko dute elkar, obrari buruzkoak behar bezala jaso ahal izan ditzaten.

26

DESADOSTASUNAK

Kontratu hau interpretatzearen ondorioz sor daitezkeen desadostasun guztiak ebazteko, EGILEA zein ARGITALETXEA ekitate-arbitrajearen mende jarriko dira prozedura hau bideratzen duen Legean aurreikusitako araubidean. Eskumen judizialaren mende jarri behar diren gai guztietarako, alde biak XXXXXXXXXXXX(e)ko epaitegi eta auzitegien mende jartzen dira, eta uko egiten diote beren foruari, beste bat balitz.

27

KONTRATUEN KOPIA BANA

Kontratuaren ale bana edukiko dute alde biek, baina biak ondorio bakarreko.

.....n,koak XX,

EGILEA

ARGITALETXEA